

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezerekin izango dugun harremana oso garrantzitsua da, gure produktuarekin lasai eta seguru senti daitezen. Gure banda kardiobaskular adimenduna pertsona guztientzat da, baina batez ere adineko pertsonentzat eta aurrekari medikoak dituztenentzat. Horregatik, harremana argia, gertukoa eta oso erraza izango da.

Bezere berriak erakartzeko, informazio oso sinplea eta ulergarria emango dugu WEB, APP eta Sare Sozialetan. Mezu motzak eta argiak erabiliko ditugu, batez ere adinekoentzat, errazak izan daitezen. Gainera, familia-kideek ere (seme-alabak, ilobak...) produktua gomendatu ahal izango dute, sare sozialetan ikusiko dituzten bideo eta azalpen errazei esker. Horrela, konfiantza sortuko dugu eta jendeak gure produktua seguru eta erabilgarria dela ikusiko du.

Bezereak mantentzeko, harreman konstantea eta laguntza ematea funtsezkoa da. Horregatik:

- APP-ean alertak, azalpenak eta jarraipen sinpleak bidaliko dizkiegu.



- WEBean laguntza gune bat egongo da, edozein galderari erantzuteko.



- Sare sozialetan ere erantzun azkarrak emango ditugu, mezu laburren bidez.



Adineko pertsonen normalean harreman pertsonalagoa nahi dutenez, gure mezuak beti oso argiak eta lasaitasunezkoak izango dira. Gainera, bandak funtzionamendu automatikoa duenez (anomalia detektatzen badu anbulantziari deitzea), guk bezeroari eguneroko segurtasun-sentsazioa emango diogu.

Denbora igaro ahala, APP-ak jakinarazpen errazak bidaliko dizkie, banda ondo erabiltzen ari direla gogorarazteko eta laguntza behar badute gurekin harremanetan jartzeko. Horrela, bezeroak pozik mantenduko ditugu eta beti sentituko dute bakarrik ez daudela.